



Alkatearen proposamena

T&B (5)

Nik, Izaro Elorza Arregui andreak, Oñatiko Udaleko alkate-presidenteak, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz.

Gaia: Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzeako kontratu txikia onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa, Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen Teknikariak, honako kontratazio hau proposatu du, eta 2022ko martxoaren 14ko bere justifikazio txostenak hala dio:

“Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzea:

1.- XEDEA

Oñatiko Udal Gobernu taldearen politiken helburua da, besteak beste, gure baso eta ekosistemak osatzen dituzten espezie autoktonoei balioa ematea eta, ondorioz, haien biodibertsitatea ez galtzea.

Hori bi lerrotan islatzen da:

- a.- Hazkunde azkarreko monolaborantzak baino askoz jasangarriagoak eta errentagarriagoak diren espezie autoktonoak landatzearen aldeko apustua.*
- b.- Herritarrak kontzientziatzeko lana, espezie horiek etorkizunera begira duten garrantziaz, eta horiek iragan hurbilean duten presentziaz, erabilerez eta garrantziaz.*

Hau dela eta, espezie autoktono bat erabiliz, euskarri fisiko ikusgarri eta iraunkor bat sortu nahi da, lehen aipatutako helburuak betetzeko balioko duena idatzizko laguntza batekin.

2.- KONTRATAZIOAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Sektore publikoko administrazioek soilik beraien xede instituzionalak betetzera zuzendutako kontratuak gauzatu ahal dituzte (Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea)

Toki erakundeek eskumena da ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeari buruzkoa).

Helburu horiei jarraituta, hazkunde azkarreko monolaborantzak baino jasangarriagoak diren espezie autoktonoak landatzearen aldeko kontzientzia lantzeko balio ahal du elementu eskultoriko bat bere idatzizko laguntzarekin.

Hortaz, elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzea egokia izan ahal da toki erakundeek ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzeako, sustatzeko, kudeatzeko eta defendatzeko duten betebeharrak lortzeko.

3.- BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia BEZa kenduta da 14.999,00 €.

4.- ESLEIPEN PROZEDURAREN JUSTIFIKAZIOA

Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikulua xedatutakori jarraituz kontratu txikitat joko dira 15.000 eurotik beherako, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak.

Oñatiko Udalaren kontratu txikien izapidetzea arautzeko 1/2021 jarraibideek xedatutakoa kontuan izanda (Alkatetzaren 630 Dekretua) 5.000-15.000 euro beza gabeko zerbitzu kontratuetan, eskaintza eskatuko zaie beharrezko gaikuntza profesionala duten hiru enpresari, gutxienez. Ezinezkoa bada aurrekontu bat baino gehiago jasotzea kontratuaren xedearen izaera bereziagatik, dauden inguruabarrengatik edo merkatuaren gorabeherengatik, berariaz jasoko da hori gertatu dela gastua justifikatzeko onespenez proposamenean, eta ezinezko egiten duten arrazoiak justifikatuko dira.

Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzeak duen berezitasuna kontuan izanda, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak proiektuen lehiaketei aplika dakizkiekeen arauak hartu dira oinarri bezala dira (183-187. artikulua). Halaber, behin elementu eskultorikoa aukeratuta, 9/2017 Legearen 168.d artikulua xedatutakoaren printzipiora jarraituta, eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak lehiaketaren irabazleari esleituko zaizkio zuzenean.

Hori kontuan izanda, kontratazioak 2 fase ezberdin izango ditu:

Lehenengo fasea: elementu eskultorikoa aukeratzeko ideia lehiaketa

Bigarren fasea: elementu eskultorikoa exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzea

Kontratu txiki honen izapidetzen konkurrentzia eta gardentasuna bermatzeko eta Udalak bere funtsak modu eraginkorrean erabiltzeko, elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzeak baldintza plegua eta deialdia Oñatiko web orrialdean eta bilarako komunikabideetan argitaratuko dira.

4.- DIRU-ATALA

Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzeak kreditu nahikoa du Oñatiko Udalak 2022ko aurrekontuetan, hain zuzen: 1106.481.162.10.01 2022 (5524) "bertako ostozabal basoen sustapena" kontu sailaren eta bere lotespen-mailaren kargura.

5.- GAUZATZEKO EPEA

Eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak 8 hilabeteko epean gauzatu beharko dira.

7.- ESKAINTZAK HAUTATZEKO IRIZPIDEA

Elementu eskultorikoa aukeratzeko ideia lehiaketa ondorengo irizpideen arabera egingo da:

A) MATEMATIMA FORMULEN BIDEZ NEURTU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

A1. Eskaintza ekonomikoa: 15 puntu. Proposamenik merkeenari 15 puntu emango zaizkio, salbu eta balio ez-normalak edo neurrigabekoak baditu. Ezinbestekoa izango da xehatutako proposamen ekonomikoa aurkeztea, erreferentzia-aurrekontua jarraituta.

Puntuaziorik handiena emango zaio prezio merkeen eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da gehiengo puntuazioari formula honetatik ateratzen dena: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailaren eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiekeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da:

$$PI=(Ob/Ol)\times 15$$

Non-eta:

PI: lizitatzailaren puntuazioa

Ob: eskaintzarik txikiena

Ol: lizitatzailaren eskaintza

B) BALIO-IRITZI BIDEZ NEURTU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

B1.- Gehienezko elementuaren iraupena: 10 puntu. Honako parametro hauek hartuko dira kontuan:

- Kanpoarekiko erresistentea izatea: euriak jasatea, temperaturak, eguzki-erradiazioa (UV)
- Kolpeen aurrean erresistentea izatea (deformazioak saihestea).
- Balizko ekintza bandalikoaren aurrean erresistentea izatea.

- Mantenu-premia txikia edo nulua izatea, artistak berak dokumentu batean xehetasunez zehaztuta utzi beharko duena.

3.- Material naturalak erabiltzea, bizi-zikloaren amaieran materialak berrerabiltzea.

B2.- Materialen erabileran karbono-aztarna txikiena duen proposamena puntuazio handienarekin baloratuko da. Gehienez 15 puntu

B3.- Bere ezaugarrien eta dimentsioen eta kokatuta dagoen ingurunearen arteko erlazioa eta proportzionaltasuna eta proiektuaren egokitasuna (gehienez 20 pto)

Kokatuta dagoen ingurunearekiko integrazioa baloratuko da. Era berean, proposamenak lortu nahi diren helburuei egiten dien ekarpena baloratuko da: bertako espezieak sustatzea eta herritarrak kontzientziaztea.

B4.- Proiektuaren azalpen-memoria (gehienez 20 pto)

Proposamenak gauzatzearen bideragarritasun tekniko-ekonomikoarekin eta proposatutako epeekin duen koherentzia baloratuko da.

Memoriaren kalitate teknikoa baloratuko da.

B3 eta B4 azpi-irizpideetako puntuak honela banatuko dira:

- * .- Puntuen % 100 bikaintzat jotzen den proposamenari.
- * .- Ontzat jotzen den proposamenari emandako puntuen % 75.
- * .- Oinarritzotzat jotzen den proposamenaren puntuen % 50.
- * .- Proposamenari emandako puntuen % 25, kaskartzat jotzen bada.
- * .- Oso kaskartzat jotzen den proposamenari emandako puntuen % 0.

B5.- Proiektua ezagutarazteko proposatutako ekintzak. Gehienez 10 puntu

Hala nola; jendaurreko ekitaldiak, informaziorako baliabideak (prentsa oharrak, idatziak, etab).”

Eguno udal-politiken helburua da gure baso eta ekosistemak osatzen dituzten espezie autoktonoei balioa ematea, eta, ondorioz, haien biodibertsitatea ez galtzea.

Hori bi lerrotan islatzen da:

a.- Hazkunde azkarreko monolaborantzak baino askoz jasangarriagoak eta errentagarriagoak diren espezie autoktonoak landatzearen aldeko apustua.

b.- Herritarrak kontzientziazteko lana, espezie horiek etorkizunera begira duten garrantziaz, eta horiek iragan hurbilean duten presentziaz, erabilereiz eta garrantziaz.

Hau dela eta, espezie autoktono bat erabiliz, euskarri fisiko ikusgarri eta iraunkor bat sortu nahi da, lehen aipatutako helburuak betetzeko balioko duena idatzizko laguntza batekin. Ondorioz, lehiaketa honen helburua da kontratu txiki baten bidez elementu eskultoriko bat lortzea.

Kontratu txikien erregulazioa SPKLren artikulua hauetan jasotzen da:

1. 29.8 artikulua: "Lege honen 118. artikulua lehen apartatuan zehazten diren kontratu txikiek ezin dute iraun urtebete baino gehiago, eta luzatu ere ezin dira egin."

2. 63.4 artikulua: "Kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez ere hiru hilean behin argitaratu beharko da. Kontratu mota horretarako, informazio hau argitaratu beharko da, gutxienez ere:

objektua, iraupena, adjudikazioaren zenbatekoa -balio erantsiaren gaineko zerga barne- eta adjudikaziodunaren izena. Kontratuak adjudikaziodunaren izenaren arabera ordenatuko dira.”

3. 118 artikulua: “1. Kontratu txikitzat joko dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, hargatik eragotzi gabe 229. artikuluan estatu-eremuan zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei buruz xedatutakoa.

2. Kontratu txikietan, espedientea izapidetzeko, kontratazio-organoak txosten bat egin beharko du, arrazoituta justifikatuz kontratuaren beharra dagoela eta ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari, aurreko paragrafoan deskribatutako atalaseak ez aplikatzeko.

3. Halaber, gastua onestea eta dagokion faktura gastuari eranstea eskatuko da; faktura horrek lege hau garatzeko arauetan ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

4. Obra-kontratu txikian, gainera, obren aurrekontua gehitu beharko da, hargatik eragotzi gabe dagokion proiektua izatea, indarrean dauden xedapenek hala eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikuluan aipatzen diren ikuskapen-bulego edo -unitateen txostena eskatu beharko da, lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten dienean.

5. Artikulu honen 2. paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko ordainketa txikiak egiteko kutxa finkoko aurrerakin-sistemaren edo antzeko sistemaren bidez ordaintzen diren kontratuetan, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik gorakoa ez bada.

6. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira.”

4. 131 artikulua: “Kontratu txikiak zuzenean adjudikatu ahalko dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi adjudikatu ahalko zaizkio, 118. artikuluan ezarritako baldintzak betez betiere.

Azaldutakoagatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Onartzea teknikariak egindako txostena. Txostenak kontratatzeke beharra justifikatzen du, eta kontratuaren xedea ez dela aldatu kontratazio txikiaren atalaseak aplikatzea saihesteko.

Bigarrena.- Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzeke prozesua abian jartzea eta lehiaketaren oinarriak onartzea.

Hirugarrena.- Kontratu txiki honek ekar dezakeen gehienezko gastua onartzea 14.999€ (gehi %21eko BEZ-a), 2022ko aurrekontuko dagokion partida eta bere lotespen mailaren kontura.

Laugarrena.- Lehiaketa honen oinarriak web orrian, iragarki oholean argitaratzea, 20 balio eguneko epea emanez, eskariak aurkezteko.

Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Oñatin, 2022ko martxoaren 16an.
Alkatea
Sin.: Iزارo Elorza Arregui Andrea.

